

IRAKASKUNTZA-GIDA 2018/19

Ikastegia 231 - Psikologia Fakultatea

Zikl. Zehaztugabea

Plana GPSICO20 - Psikologiako Gradua

Ikastaroa Zehaztugabea

IRAKASGAIA

25039 - Euskararen Arauak eta Erabilerak

ECTS kredituak: 6

IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA

Psikologia graduko ikasleek hizkuntza eta komunikazioa ondo menderatzeko premia dute, bai gradua egin bitartean eta baita ikasketak amaitu eta lan-munduan barneratzean ere. Gradua egiten ari direnean, batetik, Gradu Amaierako Lana idazteko eta aurkezteko beharko dute euskaraz zuzen eta egoki aritzeko gaitasuna; bestetik, nahitaezko praktikak egiten ari direnean oso baliagarri izango zaie euskaraz argi eta txukun komunikatzeko gaitasuna. Gradua amaitzen dutenean, Psikologia ikasleek askotariko bideak hartuko dituzte: osasunaren alorra, hezkuntzarena, enpresa mundua, akademia eta ikerketa, eta beste hainbat. Horietan guztietan eskatuko zaie hizkuntza ondo menderatzea eta argi eta zehatz komunikatzeko gai izatea. Beraz, berebiziko garrantzia du Psikologia ikasleentzat idatzizko eta ahozko komunikazioan, bietan, trebatzeak.

"Euskararen arauak eta erabilerak" (EAE) irakasgaia graduaren laugarren mailan eskaintzen da, lehenbiziko lauhilekoan, eta "Komunikazioa euskaraz: Psikologia" (KE) irakasgaiaren oinarria da nolabait, zeina gradu, maila eta lauhileko berean eskaintzen den. Hautazko irakasgaiak dira biak. Lehenengoan, hizkuntza zuzen eta egoki erabiltzeko oinarrizko tresnak irakatsiko zaizkio ikasleari, eta arreta jarriko zaie euskaraz psikologiari buruz idaztean sortzen diren traba eta arazoei. Bigarrenean, gehiago sakonduko da hizkera teknikoan, psikologiako terminologian, testu-sorkuntzan, eta psikologiaren alorrean hizkuntzak dituen premia berariazkoetan.

Irakasgai hau euskaraz baino ez da eskaintzen.

GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK

Hauek dira irakasgai honek jomugan hartuko dituen GAITASUN ESPEZIFIKOAK:

1. gaitasuna. Goi-mailako tituludunek euskararen erabileran eta garapenean duten eraginaren kontzientzia hartzea, eta norberaren komunikazio-rola berraztertzea testuinguru horretan.
2. gaitasuna. Norberaren intuizio eta esperientzia linguistikoak sistematizatu, azaldu eta berrikustea, hizkuntzaren erabilera zuzen eta egokia jomugan.
3. gaitasuna. Kontsulta-tresnak erabiltzen jakitea (bereziki interneten eskuragarri daudenak), askotariko komunikazio-egoeretan sor daitezkeen premiei egokiro erantzuteko mailan.

Gaitasun espezifiko horiek lantzeko erabiliko dugun metodologiaren bidez, Psikologia graduan zehazten diren honako ZEHARKAKO GAITASUN hauek garatuko ditu ikasleak:

• Psikologiarekin zerikusia duen informazioa bilatzeko, kudeatzeko, eguneratzeko, hautatzeko, aztertze eta laburtzeko gai izatea, espezializatutako informazio- eta dokumentazio-iturrietatik abiatuta.

• Maila pertsonalean, profesionalean eta zientifikoan modu eraginkorrean erlazionatzea eta komunikatzea, eta banaka nahiz diziplina bakarreko zein anitzeko taldeetan lan egiteko gai izatea, ardurak hartuz eta jarduerak modu kritikoa baloratuz.

• Modu autonomoan ikasteko eta etengabeko ikaskuntzaren garrantzia baloratzeko gai izatea, lanbidearen mesederako diren gaitasunak eta ezagutzak eguneratzeko, eta ezagutza psikologikoari ekarpena egiteko.

EDUKI TEORIKO-PRAKTIKOAK

EGITARAU TEORIKOA

1. GAIA: Komunikazio espezializatua giza eta gizarte-zientzietan

- 1.1. Hizkuntzaren aldaerak eta erabilerak
- 1.2. Euskararen aldaera estandarra: euskara batua
- 1.3. Euskara espezializatua
- 1.4. Kontsulta-tresnak: corpusak, hiztegiak, kontsulta-guneak

2. GAIA: Testuak psikologiaren alorreko komunikazio-prozesuetan

- 2.1. Psikologiaren testu-genero nagusiak
- 2.2. Idatzizko komunikazioa Psikologian
- 2.3. Ahozko komunikazioa Psikologian
- 2.4. Testuaren egituraketa: argudioak eta testu-antolatzaileak

3. GAIA: Hizkuntza espezializatua Psikologian: bereizgarriak eta arazoak

- 3.1. Aldakortasuna
- 3.2. Terminologia zaindua: maileguak eta hitz-elkarketa
- 3.3. Estilo zaindua: estilo-gomendioak

EGITARAU PRAKTIKOA

Gelako saioetan, hiru eratako lanak egingo dira: ariketak, idazlana eta ahozko aurkezpena.

-Ariketak: Gelan landutako gai bakoitzari ariketa sorta bat egokituko zaio. Ikasleek gelan edo etxean egingo dituzte ariketa horiek, batzuetan banaka eta beste batzuetan taldeka.

-Idazlana: Nork bere ikasketa- edo ikerketa-gaiarekin loturiko testu idatzia prestatu beharko du, gelan jorrotutako gaiak kontuan izanda: psikologiako testuen bereizgarriak, egituratzea, hizkuntza espezializatua eta estilo zaindua.

-Ahozko aurkezpena: Testu idatzia oinarri hartuta, ikasleek ahozko aurkezpena prestatu beharko dute, gelan landutako ezaugarriak kontuan hartuz.

METODOLOGIA

Eskola eta jarduera gehienak praktikoak izango dira, eta informatika-gelan egingo dira. Horretarako, E-gela erabiliko da.

- Banakako lanak
- Talde-lanak
- Ordenagailu-praktikak
- Eskola teorikoak (ariketetan jorroturiko arazo eta egiturak azaltzeko)
- Ahozko aurkezpenak

IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak	30		10		20				
Ikaslearen ikasgelaz kanpoko jardueren ord.	25		45		20				

Legenda: M: Magistrala
S: Mintegia
GA: Gelako p.
GL: Laborategiko p.
GO: Ordenagailuko p.
GCL: P. klinikoak
TA: Tailerra
TI: Tailer Ind.
GCA: Landa p.

EBALUAZIO-SISTEMAK

- Ebaluazio jarraituaren sistema
- Azken ebaluazioaren sistema

KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Garatu beharreko proba idatzia % 30
- Test motatako proba % 30
- Praktikak (ariketak, kasuak edo buruketak) % 10
- Lanen, irakurketen... aurkezpena % 30

OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Ikasleak bi ebaluazio-modu hauetariko bat aukera dezake:

1. ETENGABEKO EBALUAZIOA:

Etengabeko ebaluazioan, hiru lan hauek gainditu beharko dira:

- 1) Gelan egindako froga idatzia (3 puntu)
- 2) Idazlana (3 puntu)
- 3) Ahozko aurkezpena (3 puntu)

- Batez besteko kalifikazioa egin ahal izateko, hiru atalak gainditu behar dira.
- Kalifikazioa osatzeko falta den puntua, gelan egindako ariketen arabera lortuko du ikasleak.
- Ebaluazio jarraitua egin ahal izateko, gelako saioetara etorri behar du ikasleak (gutxienez, % 80), eta gelako ariketa eta lan guztiak egin beharko ditu garaiz eta egoki.

2. AZKEN AZTERKETA

Lauhilekoaren amaieran egingo da, zentroak jarritako egunean. Azterketan, gelan landu diren ariketen eta lanen gisakoak egingo dira. Azterketan lortutako nota izango da kalifikazioaren % 100, honela banatuta:

- Ariketak (4 puntu)
- Idazlana (3 puntu)
- Ahozko aurkezpena (3 puntu)

Azterketan ahozko aurkezpena egin ahal izateko, euskarria alde aurretik eGelara igo beharko dute ikasleek.

OHARRAK

*Ebaluazio jarraituari uko egitea

Ebaluazio jarraitua egiten hasi eta alde batera uztea erabakitzen duten ikasleek, edo hasieratik bukaerako azterketaren bidez ebaluatuak izatea aukeratzen duten ikasleek bukaerako azterketa egiteko eskubidea dute (ebaluazioaren % 100). Eskubide hori gauzatu ahal izateko, ikasleak ebaluazio jarraituari uko egiten diola jasotzen duen idatzi bat helarazi behar dio irakasleari, lauhilekoaren hasierako 9 asteen barruan (1.-9. asteetan). Halako idatzirik bidali ezean, ebaluazio jarraiturako aurkeztutako zereginak kalifikatuko dira.

Deialdiari uko egiten dioten ikasleek «aurkezteke» kalifikazioa jasoko dute.

*Ohiko deialdiari uko egitea

UPV/EHUko Ebaluaziorako arautegiko 12. artikularen arabera, ohiko deialdiari uko egiteko, nahitaezkoa da lauhilekoa bukatu baino hilabete lehenago irakasleari idatzi bat helaraztea ukoa jakinarazteko.

EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Ezohiko deialdiko azterketan, gelan landu diren ariketen eta lanen gisakoak egingo dira. Azterketan lortutako nota izango da kalifikazioaren % 100, honela banatuta:

- Ariketak (4 puntu)
- Idazlana (3 puntu)
- Ahozko aurkezpena (3 puntu)

Azterketan ahozko aurkezpena egin ahal izateko, euskarria alde aurretik eGelara igo beharko dute ikasleek.

NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

Irakasleak emandakoa: apunteak, artikulua eta ikasleak berak erabili beharko dituenak lanak prestatzeko. Irakasleak eGelan jarriko ditu material horiek, astean-astean.

BIBLIOGRAFIA

Oinarrizko bibliografia

- ALBERDI, X., (1999): Euskaltzaindiaren araugintza berria: ikastaroa. Bilbo: EHU.
- ALBERDI, X. eta Sarasola I. (2001): Euskal estilo libururantz. Gramatika, estiloa eta hiztegia. Bilbo: EHU.
- ENSUNZA, M., ETXEBARRIA, J.R. eta ITURBE, J. (2002). Zientzia eta teknikarako Euskara: Zenbait hizkuntza-baliabide. Bilbo: UEU
- EUSKALTZAINDIA (1985-2005): Euskal Gramatika, Lehen Urratsak I-VI. Bilbo: Euskaltzaindia.
(http://www.euskaltzaindia.net/iker_jagon/iker/gramatika)
- EUSKALTZAINDIA (1993). Hitz elkartuen osaera eta idazkera. Bilbo
Jaurlaritza.
- EZEIZA, J. eta beste (2010). PREST. Unibertsitateko komunikaziorako gaitasunen esku-liburua. EHU.
- GARTZIA, Joserra (2008): Jendaurrean hizlari, Irun: Alberdania.
- GARZIA, Juan. (1997): Joskera lantegi, Gasteiz: HAEE-IVAP.
- GARZIA, Juan. (2005): Kalko okerrak, Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- ZUBIMENDI, R. eta ESNAL, P. (1993) Idazkera liburua. Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila.

Gehiago sakontzeko bibliografia

Aldizkariak

- Elhuyar aldizkaria <http://aldizkaria.elhuyar.eus/>
Uztaro <http://www.uztaro.eus/>
Gogoa <http://www.ehu.eus/ojs/index.php/Gogoa/index>
Jakín www.jakingunea.com

Interneteko helbide interesgarriak

- Elhuyar: <http://zientzia.eus/>
- Euskalterm: <http://www.euskara.euskadi.eus/q91EusTermWar/kontsultaJSP/q91aAction.do>
- EUSKALTZAINDIA: <http://www.euskaltzaindia.eus>
- Euskara Institutua: <http://www.ei.ehu.es/>
- Kalkoen Behatokia: <http://www.ehu.eus/ehg/kalkoak/>
- UPV/EHUko Euskara Zerbitzua: <http://www.euskara-errektoreordetza.ehu.es/>
- EHULKU aholkularitza-zerbitzua <http://www.ehu.eus/ehulku/>
- EHULKUren aholkuak <http://www.ehu.eus/eu/web/euskara/ehulkuren-aholkuak>
- EHUskaratuak <http://ehuskaratuak.ehu.eus/kontsulta/>
- GAIKA <http://gaika.ehu.eus/eu>
- UZEI: <http://www.uzei.eus>

OHARRAK

Irakasgai hau aurrera eramateko, ikasleek ahozko eta idatzizko euskara ulertzeko eta euskaraz idatziz eta ahoz erraztasunez komunikatzeko gaitasuna izan behar dute.